

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko irailaren 29a / VI. urtea / 198. zenbakia

Dena prest Tuteran



OSKAR MONTERO

Urriaren 15ean Nafarroa Oinez ospatuko da Tuteran. Bertako Argia ikastola joan den urteko irailean hasi zen lanean eta egun gutxi barru, hilabete hauetan egindakoa ikusteko aukera izanen dute Erriberara hurbilduko diren guztiek. Nafarroa Oinez-en ospakizunaren bidez helburu bikoitza lortu nahi dute antolatzaileek: ikastola berria ordaintzeko dirua lortu eta euskararen normalizazioan aurrerapausoa eman. Beste leku askotan bezala, Tuteran ere beharrezkoa da.

Gainera etorri zaigu udazkena. Ez dakit ez ote den azkarregi etorri. Hain da motza uda! Trinkoa ere bada, noski. Festak, oporrak, ezkontzak hortxe biltzen dira, uda eskaxa bezain profitagarrian.

Hainbat parranda, beste hainbeste aukera jende eta toki berriak ezagutzeko. galdu dituzula? A! Ba, ez dira nolana izuliko. Lehenago pentsatzea zenuen! Orain, agian berandu izan daiteke. Ala ez! Onerako beti garaiean gabiltza. Udazkena ez al zaizu iruditzen erromantiko hutsa?

Nunahi ibiltzea xarmanta eta goxoa da. Beroa joanda,

hotza ez dugu oraindik lagun. Epeltasun horretan eguzkiaren izpiak fereka dira larruarentzat. Koloreak ez dira dagonekoz itsutzeko modukoak. Horixkak eta gorrixkak elkarren atzetik darabilzkigu mendian barna. Ez da jadanik astuna egiten babesik gabeko tokietan luze ibiltzea.

Bizitzaren erritmo normalera itzuli gara. Lanean, lana. Lagunak, lagun. Etsaiak beti etsai.

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ez gara lehen baino hobea-goak izanen, beharbada.

Bosnian ez dira gauzak baretu. Bertako gatazka latzaren oihartzunak hemen entzun dira ere, gureganaino heldu baitziren gerrak bortizki mindutakoak, adinean txikiak direnak. Kartzelak ez zaizkigu hustu eta estatu mailako ustelkeri eta kalte handien egileak zigorrik gabe segitzen dute. Agoitzaldea urpean sartzea nahiko luketenek ez dute

atzera egin. Azken finean, arazorik larriek bizirik diraute.

Beharrik badela ere bestelakorik. Euskararen irakaskintza, hau da, gure hizkuntzaren iraupena bermatzen duen eredu Aragoiko mugaraino ailegatu da. Erronkari-ko haur txikiek euskaraz ikas dezakete eta Iruñeko alde zaharrekoek ere, bere auzotik atera gabe. Bada zerbait, gutxi beharbada, bainan eguzki printzak dira hodeien artetik. Gure herriaren etorkizunerako horren garrantzitsua den hizkuntza alorretik itzalak behingoz uxatzeko ordua eza-gutu beharko genuke.

Eguzki printzak

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Retratos izenburupean Paco Ocaña argazkilararen lanak ikusgai daude urriaren 5tik 12ra bitartean Iruñeko Planetarioko Ibañazra aretoan. Sarrera dohainik da eta astelehenetan itxirik dago.

IKASTAROAK

Iruñeko Alde Zaharreko elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu datorren hiru hilabetetarako. Dantza; eskulanak; masajea; joga eta lasaikuntza; argazkilaritza; margolaritza eta marrazkia; jostura; keramika hotean; emakumeentzat autodefentsa eta antzerkian lehen pausoak dira eskaintzen diren ikastaroak. Matrikula, elkarteak Aldapa kalean 5. zenbakian duen egoitzan egin behar dira goizeko 11,30etatik 1,30ak bitartean goizean eta arratsaldean, 7etatik 9ak arte.

Nafarroako Antzerki Eskolan umeentzako zein helduentzako (antzerki teknikak lehen pausoak eta ahotsaren moldaketa) tailerren matrikula epea oraindik zabalik dago urriaren 11 bitartean. Izena eman edo informazioa lortu nahi duenak eskolak San Agustin kalean duen egoitzara joan behar du.

HITZALDIA

GITEk antolatuta, Gobernu Kanpoko Erakundeek Txinan egin duten emakumeen foroari buruzko hitzaldia dago gaur. Ekitaldia Iruñeko Zapateria 50 kalean izanen da arratsaldeko 8etan.

Udazkeneko bira 95 ekitaldien barruan Leitzako Aurrera elkarteak dantzariak dantzatzeko dute igandean Ezkurran. Ikuskizuna, eguerdiko 12etan izanen da herriko frontoian.

Otsagin Udazkeneko bira 95 ekitaldien ere 'Tempomobile' dantza garaikidea ikusteko aukera dago. Ekitaldia, bihar, eguerdiko 12etan izango da frontoian.

ZINEMA

Burlatako Floirac plazan, udako zinema egitarauaren barruan, 'Máximo riesgo' pelikula eskainiko dute.

Elizagorriaren Udazkeneko bira 95 egitarauaren baitan 'El peque se va de marcha' pelikula emanen da herriko plazan. Filma bihar, gaueko 9,30etan izanen da.

BERTSO SAIOAK

Gaintzako plazan bertso jaialdia dute gaur gaueko 10,30etan. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua bertsolariak kantatuko dute.

Igantzin herriko festak direla eta, arratsaldeko 2etan herri bazkaria dago bihar ostatuan. Bazkolondoan, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Manolo Arozena bertsolari ariko dira. Igandean berriz, arratsaldeko 8etan eta elizan, bertso jaialdia izanen da. Jokin Sorozabal, Mikel Mendizabal, Jon Maia, Manolo Arozena eta Maialen Lujanbio bertsolariak kantatuko dute.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Aukeraketa ona

Espainiako itzuli aipagarria egin ondoren David Garcia tafallarrak Euskadi taldearekin egingo ditu hurrengo bi denboraldiak. Ondo. Kirol titularra besterik behar ez lukeenak, ordea, muturtu ditu batzuk. Santi Crespo altsasuarrak bide bera

Euskadi taldean hau ere— eta gainontzekoak beti egon dira Etxabarriren agindupean. Denak laguntzaileak izan dira —'txatxua' txirrindularien hizkeran—, atarrabiarraren zaldun leialak. Orain, ordea, itzuli ona egin ondoren, David Garcia na-

Mapei txirrindulari bakar baten menpe egon ohi dira, eta ez da hor burua kanpora ateratzeko aukera handirik. Euskadi taldea asmakizun handia da ordea. Hor denek dute askatasuna, profesionaletan benetan aritzen ote diren jakiteko lasaitasuna, eta



egin dezakeela jakiteak, are gehiago. Biak Banestokoak izan direla —direla Garciairen kasuan— jakinik, maldizkioka hasi ere bai norbait. Zergatik?

Mesfidantza sasi-politiko-paranoikoak aparte utzita —badaude, izan ere, eta ez gutxi—, ez da ohikoa nafar bat Banestotik kanpo aritzea. Bi Induraindarrak ezezik, Lukin, Lezaun —egun

hiago izan du Perurenarekin joan, Abartzukoarekin gelditu baino; arratoiaren burua izan ezen lehoiaren itsatsa.

Ez da txarra izan, ene ustez, aukeraketa. Gaur egungo talde handien akatsa baita erabateko menpekotasuna dutela txirrindulari handiekiko, eta zeharo tratatzen dutela gazteen bidea. ONCE, Banesto edo

amateurren artean izugarriko ikusmira sortu du. Igor Flores urdiaindarra ere hor ariko da heldu den denboraldian. Hirurek —Garcia, Crespo eta Floresek— falta izango dituzte akaso beste taldeetako maila eta baliabideak, baina euren posibilitate guztiak garatzeko aukera aparta eskaini zaie. Aprobetxa dezatela.

ASTEKO PERTSONAIAK



Clotilde Garcia
Emakumearen Institutuko zuzendaria

Clotilde Garcia da Emakumearen Institutuko zuzendari berria. Madrilen jaioa, 50 urte ditu eta ezkondua dago. Psikologia Klinikoko diplomata dago eta pedagoga da. Emakumearen Institutuko zuzendaria izan baino lehen Inersoko Nafarroako zuzendaritza lanetan aritu zen 1991. urtera arte; ondoren, Gizarte Arazaletako Ministerioko zuzendaria izan zen herrialdean. Clotildek emakumearekiko diskriminazioak baztertzea du helburu nagusi bere kudeaketan, eta horretarako Espainiako zein herrialdeko legea ongi betearaziko duela ziurtatu du. Era berean, emakumearen berdintasuna bermatzeko duen plan bat burutuko du non Nafarroako Administrazioako sail guztiak parte hartzea bultzatu nahi dituen.



Jose Irigibel
Senadorea

Nafarroako Parlamentuak CDNko Jose Irigibel foru komunitateko senadore aukeratu zuen iragan asteartean. Irigibel izan zen Legebiltzarreko alderdiek aurkezturiko hautagai bakarra, eta hiruko Gobernuaren 23 botoak jaso zituen. UPN eta IU alderdiek botoa zuri eman zuten —22 guztira— eta HBko bost parlamentariak ez zuten parte hartu bozketan. Irigibel Nafarroako laugarren senadorea da eta Estebe Petrizenek (EA) orain arte izandako kargua hartu du. Senadore berriak 53 urte ditu eta enpresaria da. UPN alderdian hasi zen politikari lanetan, baina alderdi honetan izandako tirabiren ondoren, Allirekin batera CDN alderdi berriaren sortzaileetakoa izan da. Senadore berriak, Nafarroatik eta Nafarroarentzat lan egingen duela iragarri du.

AHAZTU GABE!

IRRATIA



Eguzki Irratiak neguko programazio berriari ekinen dio etzi eta, hori ospatzeko, zenbait ekitaldi antolatu ditu gaur Iruñeko Gaztetxean. Arratsaldeko zortzietan Legaleon antzerki taldearen eskutik 'La historia de Merilu, la muñeca hinchable' lana ikusteko aukera izanen dute gaur Gaztetxera hurbiltzen direnek. Ordu bete beranduago, gaueko bederatzietan, Ama Say eta Kashbad taldeek kontzertua eskainiko dute leku berean eta, azkenik, gaueko hamarretatik aurrera, Eguzki Bideak proiektatuko dituzte Pellejeria enparantzan. Eguzki Irratiak bere entzule guztiei ezezik, irrati hobeto ezagutu nahi duen orori ere luzatu dio gaurko ekitaldietan parte hartzeko gonbita. Hamahirugarren urteurrena betetzen duen honetan, Eguzki Irratiak neguko programazioan proiektu berriak gauzatzeko eta kalitatea hobetzeko erronkari ekinen dio urriaren batean. Ikasturte berriari, besteak beste emisio orduak luzatuko dituzte; astelehenetik ostiralera arte arratsaldeko ordu bata t'erdietatik gaueko ordu batera arte eta asteburuetan egun osoan zehar emitituko dute.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Euskalerrria Irratiaren programazio berria

E.D. DE ULTZURRUN / IRUÑEA

Iruñeko Euskalerrria Irratiak programazio berriari helduko dio heldu den astelehenean. Zazpi urte iragan dira lehendabiziko emisio ordua aineratu zutenetik, eta argi erakutsi dute posible dela euskarazko irratia egitea Iruñerrian. Izan ere, zenbaitek hori zalantzan jartzen zuten, behar adina euskaldunik ez zelakoan. Baimenaren gorabeherak bazterrean utzitza, Irratia aurrera doa, programazioaren aldetik, gero eta zabalago gainera.

Hasi hurren dagoen irratialdi honetan, egunean zazpi orduz ariko dira eta hori ez da gutxi, kontuan hartu behar baita, saio elaboratuak direla, edukinaren aldetik landuak eta prestatuak. Irratikideen helburua da kalitatezko saioak egitea.

Euskalerrria Irratia Iruñetik ariko den euskara hutsezko irrati bakarra izanen da denboraldi honetan ere eta xedetzat du Iruñerrian bizi diren euskaldunen arteko zubi izatea, elkarren arteko ezagutzari begira. Izanez ere, Mikel Bujanda zuzendariak dioten moduan, «uste baino askoz ere euskaldun gehiago bizi gara hemen. Gertatzen dena da sakanatuta gaudela, baina badira euskaldunak sektore eta arlo gehiengoenetan. Horiengana iristea, horixe da helburua, bidena-bairean, euskaldungoaren konpaktazioari bultzada emateko».

Euskalerrria irratiaren esparrua Iruñerria da, baina hutsune batzuk baditu. Jakina, antena toki seguruan jarri behar izan dute



Astelehenean hasiko da Euskalerrria Irratiaren programazio berria.

orain artean, lizentziarik ez dutelako, baina laster konponduko dira arazo tekniko horiek eta seinalea garbi ailegatuko da zokomoko guztietara. Bitartean, orain artean egin duten bezala, lanean segituko dute, FMko 91.4an. Hona hemen 95-96 irratialdiko programazioa: Goizeko 7.55eko albiste aurrerapenaren ondoren, 'Bertatik bertara' goizeko albistegia aineratuko du Euskalerrria Irratiak 8.30ak eta 9.00ak bitartean. 10.00ak eta 12.00ak bitartean, berriz, 'Zokobetailu' magazina izanen da programazioko izarra. Saio entretenigarria egitea du helburu Euskalerrria Irra-

tiak eta horretarako, elkarrizketak, erreportaiak, lehiaketak, zinea, ibilaldiak, musika, ipuinak eta beste hainbat gai nahasten ditu magazin honetan.

Ordubatek aldeko albiste aurrerapenaren ondoren, goizean gertatu dena aztertuko du 'Egunean eguneko' saioak, ordubate t'erdia eta ordubiak bitartean. Arratsalde partean, berriz, hirurak eta laurak bitarteko tartean, albisteak, musika eta auzoetako, Iruñerriko eta eskualdeburuko berriemalen txanda izanen da. Astelehenean Baztan-Erreka-Bortziriak eta Lizarra-Estellerrria aldetik ailegatuko dira berriak,

asteartean, Barañain, Larraun eta Altsasu-Sakana aldetik, asteazkenean Berriozar eta Iparraldetik, ostegunean Atarrabia, Aezkoa-Erroibar eta Tuteria-Erribera aldetik eta ostiralan Burlata eta Tafalla aldetik.

'Hitzordua' saioak seiak eta zazpiak bitarteko tartea beteko du eta egunez egun gai zehatza jorratuko du: astelehenean kirolak, asteartean elkarrizketak eta hilean behin tertulia, asteazkenean gonbidatuaren musika, ostegunean kultura, bertsolaritza, euskalgintza eta musika eta ostiralean astebururako proposamenak.

Irurtzun

II. Txirrindula Eguna ospatuko dute igandean

IRUÑEA

Sakanako II. Txirrindula Eguna ospatuko da igande honetan, Burunda eta Aralar Txirrindula taldeek, ikastetxeek eta Sakanako Kirol Batzordeak antolatuta. Irurtzungo Foru plazatik abiatuko dira txirrindulariak goizeko bederatzi t'erdietan eta Sakanako herrietan barrena 35 kilometroko ibilbidea egin ondoren, Altsasuko Foru plazan amaituko da ibilaldia. Hamaitakoa jateko Lakuntzan hartuko dute atsedean partehartzaileek. Txirrindularen egun honetan hamar urtetik gorako haurrek izango dute parte hartzeko aukera.

Antolatzaileek, hala ere, adin

guztietako pertsonendako ibilbidea dela azpimarratu dute eta Sakanako eta inguruko txirrindulari guztiei luzatu diete igandeko ibilaldian parte hartzeko deia. Antolatzaileek, halaber, mendiko txirrindula eramateko gomendioa egin dute. Txirrindulari bakoitza bere herrira itzuli ahal izateko, halaber, autobusa eta kamioia jarriko dituzte antolatzaileek.

Bestalde, txirrindula lasterketa honen helburua lehiaketa baino gehiago mendian zehar ibiltzea dela nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek. Hala ere, 35 kilometro inguruko ibilaldi honetan parte hartuko duten txirrindulari guztiek izanen dute sari txiki bat, oroigarri gisa.

Igantzi

XVI. Artzai Txakur Txapelketa izanen da heldu den igandean

AMAIUR

Datorren igandean, urriak 1, Igantziko XVI. Artzai Txakur Txapelketa egingen da Igantziko Meaka-gain zelaian, arratsaldeko 4etatik aitzinera. Urtero bezala zortzi zakurrek parte hartuko dute eta denek lan berdina egin beharko dute hasteko: banderatoekin markatutako bidetik gidatu beharko dituzte zakurrak; horren ondoren, artaldea artzainaren ondora eraman, eta artzainari kasu eginez hesi nagusiaren ondoan dauden bi hesietako batetik pasatu beharko dute artaldea. Lehendabiziko proba hau hobe egiten duten lau zakurrek bigarren proba bat egin beharko dute: erdian kokaturik dagoen

hesi nagusian sartu beharko dute artaldea eta ondoren hesi horretatik atera. Azken proba hau egiteko denbora gutxien erabiltzen duen zakurra izango da proba honetako garailea.

Aurtengo txapelketa honek goi mailako ardi zakurrak izango ditu, Nafarroako txapelketan hiru lehenak izan zirenak egongo baitira, baita Felix Irigoien ere, iaz hemen lorturiko txapelari eutsi nahian.

Hauek izango dira zortzi txakurrak: Felix Irigoien 'Kubino' eta 'Rubi', Josetxo Billabonaren 'Berri' Patxi Etxeberriaren 'Lagun', Xabier Urienen 'Bat', Pedro Mari Oskarizen 'Zara', Mikel Garaiarren 'Xarpa' eta Arrilagaren 'Txiki'.



garaiak oraindik ere trsitetzen nau. Negua, gainera, gainean dugu dagoeneko. Hurrengo hilabeteotan, «segurtasun arrazoia» direla medio, goizago itxiko digute patioa, eta galerian pilatu beharko dugu. Iluntasunean presook, nonbait, bost metroko altuera duen harrisia gaintzeko kapaz gara. Horretaz landara, jakina, gutxi barru berriro ere bost burusi jarri beharko dituzte ziegako ohean, eta hala eta guztiz ere hotza pasatuko dute. Nahi adina burusi eta arropa jantzita ere ohean, patioan, galerian, ikasgelan, dutxan hotza pasatuko dute.

Galerian, Vaca nire ondoren igar da. Irratia belarriaren parean darama, altu, altu, eta 'Carrusel deportivo' entzuten ari da. 'Boquillas Zargar', 'Autoescuela Mariezkurrena', 'Regalos, cuberterias Sagarra', 'Soberano es cosa de hombres...' Jada ez dago zalantzarik, deprimiturik nago. Martiarenari esaten diot, eta berak depresioa desageratzen dit. «Depresioa ez da existitzen. Depresioa burgesen asmakizuna da». Eskerrik asko, Marti.

Kritikontzi

Atutxak eta Ardanzak batuaz ez ote dakite?

XANTI BEGIRISTAIN

Gezurra irudi balezake ere, egiakoak dira oso, gure parramenen Euskal Herri honetan gertatzen diren bitxikeriak. Kontua da ez dagoela modurik J.M. Atutxa eta J.A. Ardanzari euskara batuaz mintzatzeko. Argi dezadan: «batuaz mintzatzeko» esaten adierazi nahi dut, ahoz hitz egiten dutenean eta inondik irakurri gabe, hau da, kazetarietxeko elkarrizketetan, mahainguruetan, prentsaurrekoetan, adierazpenetan, eta abarretan.

EITB eta gainerako euskal komunikabideetan hasi nintzenean harrizta gelditu nintzen ikusirik bi pertsona nabarmen horiek ez zutela euskara batua erabiltzen bere osotasunean behintzat. Orduan pentsatu nuen handik gutxira joango zirela «euskara jasoa» ikasten eta praktikan jartzen, baina ez, huts eman zidaten. Eta orain, euskal komunikabideen hasiera hartatik jadanik 13-14 bat urte gutxienez igarotzen denean, eta gaur egun oraindik, Ardanza eta Atutxa jaunei garai hartako euskalki berberaz solasten aditzen diedan are harrizta geratzen naiz. Eta gogora zalantza eta galderak trumilka heldu zaizkit: zer gertatzen ote zaie agintari hauei? Ezingo dute euskara batua ikasi ala ez ote dute nahi izango? Denbora falta izango dute agian? Ez da izango ba, ez dutela baloratzen euskara batua Euskal Herriko tresna bateratzaile eta elkar ulertarazle bezala, ez da hala? Galdera hauek eta beste askok estutzen didate burmuina kezka hau dela eta.

Bestaldetik ezin uka daitezke Ardanzak eta Atutxak euskaraz egiteko duten errotasuna, alderantziz, oso jarioz handiz eta egokiz mintzatzeko dira. Ikusten da jaiotzatik euskaldunak direla, ama hizkuntzaz pentsatzen dutela eta bikainki menperatzen dutela beren euskalkia. Baina horiek guztiak horrela izanda zergatik izango ote da batuaz baliatzeko horrenbeste zailtasun izatea?

Izan ere, hainbat eta hainbat urtetan hainbeste jende saiatu



ondoren lortu zen, eta oraindik gauzatzen ari da euskara batua. Nik oso gutxi dakit baina Euskaltzaindiko pertsona jakintsuei eta abarrei aditzen diedanaren arabera, Atutxa eta Ardanza jaunek aukera aparta dute batua erabiltzeko beren eskuhartzeetan. Euskara batua sortu eta bultzatzen dutenek diote, hain zuzen ere, delako erregistro hori asmatu zela goi mailako estamentuetan eta abar erabiltzeko, hots, ikas-irakaskuntza, komunikabide, legebiltzar, Jaurleritza, eta abarretan. Zertarako jarraitu? Badakit buruargiak direla!

Esandako guztiarekin ez nuke inortxo ere mindu nahi. Alderantziz, ederki ulertzen dut lehendakariak eta Barne sailburuak beren euskalkia maitatzea, baloratzea eta erabili nahi izatea, baina komunikabide eta abarretan hitz egiten dutenean agian pentsatu beharko lukete unetxo batez norentzat ari diren solastean, beren etxeko-adiskide-eta lagunartekoentzat ala Euskal Herri osoko biztanleentzat. Nik

ere gogotik maite dut larraunera baina ikasgeletan batua erabiltzen dut, esate baterako, jakina!

Pentsa dezagun zer-nolako itxura eta kultur maila emango litzuzkeen adibidez Felipe Gonzalezek bere komunikabideetan honako antzeko zertxobait esango balu: «La shituació atual dea la nació epañola eh etremadamente eh pantoça...». Hitzak eta arrazoak soberan daude nire aburuz.

Esanak esan ba, ea noiz hasten diren «gure gidari eredu-garriak» adibide egokiagoa ematen eta igarotzen diren behingoz alfabetatze mailara. Egokierarik ez dute falta, konparaziora, AEK, IKA, HABEn, edo besterik ezean Sanduzelaiko euskaltegian, bestela Euskaltzainburuden Jean Haritzelhar jaunak suspentsioa eman beharko dizue alfabetatzean.

Eta bide batez bukatzeko, Ardanza, Atutxa, Arzalluz eta abar, ea noiz imitatzen duzuen Jordi Pujol eta ateratzen zireten Espainia eta Frantziako irati-telebistetan euskaraz hitz eginez!

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Kontuz gero liberalkeriarekin (II)

Liburuaren egilea ez da ageri baina Jose Ignacio Arana lagundikoak egina dela ezaguna da.

1888. urtean *Bai pecatu da liberalqueriya* izenburuko idazkia agertu zen Baionako Laserre liburugilea baitan: «*Haec scribo vobis ut non peccetis, gauza oyec esribitzen dizquitzutet pecatu eguin ez dezazuten*». Berrogeitamar orrialde ekaseko idazki ttipi hau ez da itzulpen zuzena. Sardaren ideiak gogoan harturik, idazleak elkarrizketa bat osatzen du ikasle (I.) eta maisu (M.) baten artean, non galdera erantzunen bidez liberalkeriaren desegokitasuna zertan den argi ta garbi utzi nahi duen sei kapituluaren barrena. Hitzaurrearekin batera, orduan Baionako apezpikuaren bikario zegoen Manuel Intxauspe beraren argitaratzeko eskubidea badakar, gipuzkera ederrean, bera xiberutarra izan arren: «*Guc Bayonaco jaun obispoaren vicario generalac iracurri degu liburucho bat...*». Liburu honen egilea ez da inon ageri, baina ezaguna da Azkoitiko semea zen Jose Ignazio Arana lagundikoak egina dela. Baroiko etxekoa etzen soraio ibili ikasteko orenean, leku aunitzetan ikasle baitugu: Azkoitia bera, Amezketeta, Ezkioga, Albistur, Arantzazu eta Iruñean. 1854.ean lagundian sartu zen Loiolan, eta hainbat lekutako etxeetatik pasa ostean, Burgosko Oñan zendu zen 1896.ean. Lan nahiko izkiriatu zituen, besteen artean Lizargarate eta Garzia ordeki-deekin batera *Vida de algunos claros varones guipuzcoanos de la compañía de Jesus*, Tolosan ageri zena, Modesto Gorosabelen moldiztegian 1870.ean, *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz*, Bilboko Larunbe anaien moldetegitik ateratakoa 1872. urtean —lan honen bukaeran, euskarari buruzko bi eranskin daude—: 1890. urteko *El basco* izeneko

aldizkarian eta hamasei emaldietan ageri *Disertación sobre la ortografía euskera*, urte berean lan soila argiratu zena 67 orrialdetako liburuxka bat bezala; edota *Euskal Erria* aldizkarian agertu zituen 30 artikulua baino gehiago.

Gure Aranak aski ongi eza gutzen du Sardaren originala, eta euskaldunen ohitza haikatzeko asmoz, honela arrazointzen du antologikoki: «*I. Pecatu al da liberalqueriya? M. Aissa da pecatu! I. Cergatic ordea? M. Gaiztaqueri guciya, pecatu da an. I. Liberalqueriya osoro gauza gaiztoa dena orain eza gutzen det. M. Argatican ere pecatu da. I. Pecatu chiquiya edo aundiya da? M. Osoro da aundiya. Liberalqueriya, utseguite aundi bat da, pecatu mortala*». Ontologikoki ere badu aitzakia demokrazia zalantzan jartzeko: «*Politicaraco edo erriyen gobernuraco eta le-gueac ecertan iduqui gabe. Vitoriaco ibispo jaunac beste bostequin batera, orain iru urte eguindaco carta eder eta egoqui batean, iracurtzen degu liberalqueriya dala erlijiorican gabeco politica*».

Azkenik, arrazoi komertzialak ere egon bide bazeuden: «*M. Gaveta liberalac nabarmenquiro edo osoro gaiztoac diranean, El Motin, El Globo, El Liberal eta beste asco bezala, catolico onai izua ematen diye, bañon aurretic aitatu diran bi gaceta ayec (La época eta La Union) piscanan eta ezcububan dacarte puzoya, eta gaitzic ez dutelacoan catolicoric onenac ere iracurtzen dituzte gaceta oyec, eta iguerri gabean becela, irintsitzen dute berac dacarten puzoya. I. Euscal Erriyan cer gaceta ditugu caltegarriyenac? M. La voz de Guipuzcoa, El noticiero bilbaino, eta oyen antzeco beste batzuec*».



■ Iruñeko Hiria xake torneo irekiko zortzigarren jardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 4an.

Josep Oms 2.375 ELOkoa (Espainia) — Jesus Martinez, 1.965 ELOkoa (Euskal Herria).

1.e4,c5; 2.Zc3,d6; 3.gZ-e2,Zc6; 4.d4,d4; 5.Zd4,Zf6; 6.Ag5,a6; 7.Dd2,e6; 8.0-0-0,Ae7; 9.f3,d5.

Jokaldi inozo honek partida irauliko du. Txuriek egoera ongi landu ondoren, posizio hobea lortuko dute.

10.d5,Zd5; 11.Ae7,cZ-e7; 12.Zd5,Zd5; 13.Zf5.

Ederki jokaldi hau! Beltzen eskema apurtu baitu.

13....0-0; 14.Ze3.

Ez dago zaldien trukaketa egiterik, beltzek dama galduko luketelako.

14....Dc7; 15.Zd5,d5; 16.Eb1.

Txurien posizioa hobea da, erdiko peoi horren ahultasunagatik. Baina zergatik ez dute harrapatu? Ariketa interesgarriak egin daitezke. Beltzek erdietsiko lukete ekimena. Hobe tenorea itxoitea.

16....Ae6; 17.Dd4,aG-c8; 18.Ad3,dc5; 19.Oh4,g6; 20.g4.


Babesa apurtzeko lasterketan lehenago iris daitezke txurriak.

20....Gc6; 21.hG-e1,d4; 22.Df2,Da5; 23.b3,Gd6; 24.h4,Dc5; 25.h5,a5; 26.g6,f-g6.

Ikus koadroa. Beltzei ziria sartu diete. Nahastu egin dira. Galduta daude.

27.Ge6,Ge6; 28.Ac4,De7; 29.Ge1,Ge8; 30.Ge6.

Txurien joko erreza eta zehatza nagusitu da. ■



Aribeko Historia' izeneko liburuxka plazaratu zuen Aezkoako Egunean, hilaren 10ean, Jose Etxegoien garraldarrak Ariben. Bertan biltzen du, xeheki eta modu interesgarri, alderdi honetako historia ezezaguna ulertzeko hainbat idazki. Pablo Mandazen Fundazioaren laguntzaz, lantto honetan bi urteko lanaren laburpena plazaratu du, horrela, Etxegoienek.


ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Hilaren 10ean egin zen Aezkoako Egunean aurkeztu eta banatu zen Jose Etxegoien garraldarrak prestatutako 'Aribeko Historia' liburuxka, Aezkoako historiari buruz lantxo interesgarri eta berria. Duela bi urte hasitako lanari etekina atera dio azkenean Etxegoienek, han eta hemen bildu zuen material guztiari aterabidea eman diolako. Presak eragindakoa —Pablo Mandazen Fundazioan egiten duen lanak uzten dizkion tarteetan harilkatu zuen lana— zenbait gaitan eskertzekoa izango zen sakontasuna falta bada ere, ezin uka aitez gustura irakurriko duten liburuxka dela egun Fundazioak berak salgai duena.

Historiaurrean hasi eta XX. mendeko bi estatistikarekin amaitzen da Aribeko historia hau, eta lehendabiziko garaietako testuak urriak badira ere, azken mendeetako bereziki interesgarria da, oso ezagunak ez diren datu batzuk dakartzalako. Lan honen berri emateko Aezkoako artxiboa miatu du tematsu Etxegoienek, berriki sailkatu dutela aprobeztatzuz. Bestalde, hainbat garairen inguruko urritasuna artxibo hori aspaldian errezelako da, eta urte askotako informazio franko betiko galdu zen. Liburuaren testuak ezezik, maketazioa eta marrazkiak ere garraldarrarenak dira.

Historiaurreari dagokionez, liburuan azpimarratzen da 1975ean Zatoiak kobazuloan hasitako ikerketetan deskubritu zen aztarnategia, euskal historiaurreari dagokionez aberatsetakoa. Ondoren agertu zen Aizpeko (Aribe) aztarnategia. Bietan eginiko ikerketen arabera, bi gizaki talde bizi ziren duela hamar mila urte inguru Aezkoan, bat Abaurregainean eta bestea Aribe inguruan. Hortik aurrera salto handi bat dago, Aezkoako historiari buruz ezaguna denaz ari garelarik, ez baitira arrastoak aurkitu. Urkuluko dorrea, Donezarretik Iruñera zihon galzada zaharra eta Arrobin aurkitu diren K.a. I. mendeko etxeak besterik ez.

Aezkoa izena 1079. urtean azaltzen da lehendabiziko aldiz dokumentazioan, Oteitzan izaniko auzi baten inguruan Leireko abadian dagoen izkribu batean, hain zuzen ere. Hor azaltzen da Eximinio Arceiz Zaraitzuko eta Aezkoako Jauna lekuko zela aipatu auzian. 1085ean berriro egin zuen lekuko lana, baina orduan soilik Aezkoako-Jaunaren titulupean. Ondoren ere, maiz azaltzen da ibarraren izena, auzien, foruen edo tituluaren inguruko izkribuetan. Ikertu denaren arabera, esan daiteke XII. mendean jadanik bazuela entitate administratiboa ibarrak. Hasieran, zazpi herri zeuden bakarrik (Abaurrea bakarra zen, eta Hiri-



Liburuxka Pablo Mandazen Fundazioaren laguntzarekin burutu da.

Aezkoako historia

berri, bere izenak dioen bezala, geroago osatu zen). Izenei dagokionez, dokumentazioan azaltzen den lehendabizikoa Abaurrea da, eta Garralda ondoren. Aribe 1319ko azaroaren 12an azaldu zen lehen aldiz, eta 1344an azaldu da lehen aribetarra, Azeari Aribekoa gaizkile sonatua, Aribeko plazan bertan urkatua.

1366an egin zen Nafarroan Euskal Herriko lehen errolda, zergak zirela eta, eta horren ara-

Aezkoa izena 1079. urtean azaltzen da lehendabiziko aldiz dokumentazioan, Oteitzan sorturiko auzi baten inguruan Leireko abadian dagon izkribu batean.

bera, Aezkoan 600 lagun inguru bizi ziren orduan. Ordurako jada, pobrea, latza zen ingurua, eta hori azaltzen da ibarrari buruz egiten diren aipuetan. 1400ean bikoiztu egin zen populazioa. Gaztelak Nafarroa menderatu eta gero, Aezkoak muga izango zuen Nafarroa Beherearekin, eta inguruko herri askok harresiak eta gaztelak eraikiko zituzten. Urte hauetako gertaera latz batzuek markatu zuten, hala ere, Aezkoa, bereziki ganaduak 1774-75ean

jasan zuen izurritea: Nafarroako behi gehienak akabatu zituen, eta egoera larrian utzi herri askotako ekonomia.

XIX eta XX. mendeetan populazioaren bilakaera mantsoa izan zen, gerrateak eta gora-beherak izan baitziren, eta 1850 urtean dago populazio kopururik altuena. Hortik aurrera beti behera egingo zuen portzentaia. Egitura administratiboa nahiko osatua zegoen ordurako, eta herriek, batzarrea kenduta, bazuten hiru erregidore, horietako bat alkatea eta beste bat poltsaz, diruaz alegia, arduratzen zena. Gorago Ibarreko Junta zegoen, gaur bezalaxe. Hamabi pertsonak osatua zen: herri bakoitzeko ordezkari bana —Hiriberrik eta Garraldak, handienak izateagatik, bina ordezkari zituzten—, eta alkatea. Bi kargu gehiago ere izan ziren, nahiz eta gaur egun ez jakin zer funtzio betetzen zuten: almirantea eta alkate ordezkaria. Alkatea ere epailea zen, eta, gerra garaian, kapitaina.

XIX. mendearen hasieran, bost sendagile zeuden ibarrean, eta artisauen artean ohizkoenak ehuleak ziren, ondoren zurginak, errotariak eta kutzaragileak. Bitxikeria gisa esan, hiru txokolategile zeudela, kixugileak edo zerraiagileak baino gehiago, kasurako. Ekonomia ez zen sobera oparora, eta 1839an, adibidez, 1.082 behi buru ziren ibar osoan. Nekazaritza ere bizirautekoa da, uzta normal batekin urte erdia edo urteko hiru laurdena egiten baitzuten. Uzta txarra edo gerra garaia zegoela, etxe nagusietara joan behar izaten zuten, edo Orreagara, gari eske.

XIX. mendean gerrak izan ziren nagusi, eta horrek kalte handiak ekarri zizkion inguruari. Napoleon jeneral frantziarrak sortutakoak bereziki gogorrak izan ziren, inguru osoa, Orbaitzetako ormaola zela eta, estrategikoki garrantzizkoa baitzen arrunt. 1820ko guda errealistekin ere Irati izan zen gune nagusia eta Aezkoatik atera ziren gerrilari famatuak. Bereziki deigarria izan zen inguruko gizon-emakumeek lehen guda karlistaren garaian liberalen alde hartu zuten jarrera. Amaieran, 1838an, miseria gorrian zeuden herri gehienak, eta laguntza eskatu behar izan zieten beste ibarrei.

XX. mendearen atarian sute batek suntsitu zuen Garralda —herriko 80 etxeetatik 66 erre ziren— eta bi aribetar —Antonio Arostegi eta Domingo Elizondo indianoak— bereziki nabarmendu ziren herriari emaniko laguntzagatik. Hortik aurrerakoa ezagun samarra da: beherakada ekonomikoa, soziala eta kulturala. Iragana ezagutzen ez duenak errepikatzen omen ditu beti lehenagoko akatsak. Horrelako lan batek balio dezala Aezkoa hobeki ezagutzeko.

«Gatazka espektakulu bihurtu dute komunikabideek»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

‘Zer gertatzen da munduan?’ izenburupean, nazioarteko gatazkei buruzko ikastaroa antolatu du bosgarren urtez Gizarte Ikasketetarako Talde Eragileak (IPES-GITE). Urriaren 4an goizeko eta arratsaldeko ordutegian hasiko den ikastaro honen arduradunak Javier Aisa kazetaria eta Javier Mateo historialaria izanen dira, urtero bezala. EGUNKARIA ikastaro honi buruzko asmoez mintzatu da Aisa eta Mateorekin.

EGUNKARIA.— Nazioarteari buruzko ikastaro honi buruz, zer errango zenukete aurkezpen gisa?

JAVIER MATEO.— Oro har, gure asmoa mundu mailako gatazka eta auziak aztertzea dela erran behar dugu eta horretarako, gatazka guzti hauen giltzarriak bilatzen saiatzen gara. Metodologiari dagokionez, zerbait dibulgatiboa egin nahi dugu baina era berean, zehaztasunari etsiz. Jorratuko ditugun gaiak, halaber, besteak beste, Estatu Batuen, Jugoslaviako gerren, mundu arabiarren, Europako Bataunaren eta Japoniaren ingurukoak izanen dira.

JAVIER AISA.— Informazio nahikoa emanez, ikastaro honetara hurbilduko den jendea nazioarteko gatazkek zergatik gertatzen diren jakin dezan da guri gehien interesatzen zaiguna, beti ere, nazioarteko gaurkotasan politikoa abiapuntutzat hartuz. Gatazka edo arazoaren aurrekariak aztertuz, gatazka horien zergatiak bilatu nahi ditugu, baita komunikabideetan egiten ez den analisi kritikoa ere.

EGUNKARIA.— Bost urte hauetan, zer-nolako jendeak hartu du parte zuen ikastaroan?

AISA.— Mota guztietako jendeak, egia erran. Etxekoandreak, kazetaritza edo zientzia politikotako ikasleak, langile edo profesionalak, eta abar.



Javier Aisa eta Javier Mateo dira ikastaroko arduradunak. J.LACALLE

Adinari dagokionez ere, bai gazteak bai helduak izan ditugu hemen ikasle. Hala ere, bada guztiak batzen dituen ezaguri bat, nazioarteko errealtateari buruzko ezjakintasuna, alegia.

MATEO.— Guzti hori kontuan hartuta, estilo berezia garatzen dugu gure klaseetan. Hau da, oinarriko datuak, mapak eta artikuluak banatzen ditugu lehenik eta behin eta horiek erabiliz, elkarriketa eta eztabaida bultzatzen dugu, guztien iritzia jakin asmoz. Komunikazioa garatu nahi dugu, finean. Eta bost urte hauetan, egia erran, ikasleen interesa piztu dugula erran daiteke eta hori guretzat oso garrantzitsua da.

EGUNKARIA.— Bat kazetaria eta bestea historialaria izanda, ikuspegi ezberdina eskaintzen al duzue nazioarteari buruz ikastaroan?

MATEO.— Gure analisiak eta lana batu ditugu. Nahiz eta disziplina ezberdinetatik abiatu gure ikuspuntuak ez dira inolaz ere kontrajarriak, alderantziz, elkarrekin osatzen dira.

AISA.— Gure iritzietan aberastasuna bilatzen dugun bezala, ikastaroan ere aniztasun ideologikoa egotea nahi dugu. Bakoitzak bere iritzia du, baita gure ere baina guri interesatzen zaiguna, gure erraten edo irakasten duguna abiapuntutzat hartuz, bakoitzak bere iritzi kritikoa jorratu dezan da. Gure ez dugu bakoitzaren ideologia gidatu nahi, alderantziz, partehartzaileek gogoeta egin dezaten da gure asmoa.

EGUNKARIA.— Jugoslaviako gerrak dira zuen ikastaroko gaietariko bat. Zein da zuek gerra hauei buruz egiten duzun analisia?

MATEO.— Bosniakoa etnia ez-

berdinen arteko gerra dela erratea topiko bat da. Gatazkaren oinarrian, ultranazionalismo etnikoaren eta etnia ezberdinek osatutako nazioa osatu nahi dutenen arteko borroka dago, finean. Biztanlegoaren eskubideak nola moldatuko diren, herrialdeak nola elkarbiziko diren eta beste hainbat auziren inguruko planteamendu ezberdinen gatazka da.

AISA.— Mateok erraten duen bezala, etnia anitzen elkarbizitza eta ultranazionalismo etnikoaren arteko aurkaritzan dago Bosniako gatazkaren giltzarria, Gatazka hau ulertzeko, hala ere, ez da historian oso atzera egin behar. Jugoslaviako azken transizioa aztertzea nahikoa da, Titoren garaitik gaur egunera arte datorrena hain zuzen ere.

EGUNKARIA.— Kazetari izanda, zer nolako papera betetzen dute komunikabideek nazioartean zure ustez?

AISA.— Kontzientzien manipulazionalak dira komunikabideak eta neurri handi batean iritzi publikoaren sortzaileak. Informazio medioak, finean, enpresa informatiboei ematen ahal zaien erabilgarritasunaren emaitza baino ez dira. Gaur egun, enpresa hauek interes ekonomikoak baldintzatzen ditu eta onura ekonomikoa baino ez dute bilatzen interes horiek. Horren ondorioz, egun bizi dugun manipulazio informatiboa sortzen da. Gatazka askori buruzko tratamendu informatiboak, halaber, analisi kritikiak baztertzeko iritzi ezberdinak bazterrean utziz. Gatazka espektakulu bihurtu dute komunikabideek.

Javier Aisa eta Javier Mateo

IRAKASLEAK

SOSLAIA

Laurehun partehartzaile inguru

Javier Mateo eta Javier Aisa Gizarte Ikasketetarako Talde Eragileko (IPES-GITE) partaide eta ‘Zer gertatzen da munduan?’ ikastaroko arduradunak dira. Orain dela bost urte antolatu zuten aipatu ikastaroa lehen aldiz eta, orduz geroztik, nazioarteko gatazken giltzarriak bilatzea dute helburu. Goizeko eta arratsaldeko ordutegian antolatutako 56 orduko ikastaro honetan 400 lagun



inguruk hartu dute parte martxan jarri zenetik.

Hoigeita zortzi egunetan zehar, aurren ere ikastaroaren izenburua den galderari erantzuna ematen saiatuko dira urriaren 4az geroztik Javier Mateo historialari eta Javier Aisa kazetaria. Beren ustez, nazioarteko gizartearen antolaketa biren arteko trantsizio garaia bizi dugu gaur egun. Antolaketa zaharra deseginda geratu zen Gerra Hotzeko bi bloketako bat erori ondoren baina oraindik ez da berria osatu.

P A N E L U C R A N D O

ZURRUMURRU POLIT. BATEN DEUSESTATZE ZIENTIFIKOA



ZALDI ERDA